

Hasiera
(<https://www.berria.eus/>)
/
(<https://www.berria.eus//>)

EDUKI BABESTUA

Etorkizuna salba dezagun

ALBOAN elkarteak ekintza humanitarioko proiektuekin laguntzen die Afrikan, Latinoamerikan eta Indian lekualdatutako eta errefuxiatutako biztanleei.

**ALBOAN**

ONG • Jesuita • Fundazioa

**Alboanek
babestutako
edukia**Oriol Solà Pardell  ALBOAN

2019. urtean 140 herrialdeetako 24,9 milioi pertsonak beren etxeak utzi behar izan zituzten natura hondamendiengatik. Horren ondorioz, gatazkek eta indarkeriak eragindako migrazio kopurua hirukoiztu egin da.

Ematen du ingurumenaren arazoaren ondorioz gertatzen diren pertsonen lekualdaketa ez direla txikiagotuko etorkizunean. Are gehiago, aurreikuspenen arabera, 1.000 milioikoak izango dira 2050. urtean. adingabeak, adinekoak, indigenak, emakumeak eta behartsuak dira ingurumenaren narriadura gehien nabaritutakoak. Klima-aldaketarengatik lekuz aldatutako pertsonen % 80 emakumeak dira. Era berean, 2004. urtean Asian gertatutako tsunamian % 70 emakumeak izan ziren.

Historian zehar, denboraldi baterako edo betiko aldatu dira biztanleak, inflexio-puntu ekologikoa gainditu denean, eta gizakiaren segurtasuna arriskuan jarri denean. Hala ere, gizakiak ez daki horren ondorioa zenbaterainokoa izan daitekeen, izan ere, giza eskubideetan eragin zuzena du horrek, hala nola bizitzarako, elikadurarako, uretarako, osasunerako, etxebizitza duin baterako, intimitaterako edo bizi maila egokia izateko eskubideetan. Ingurumenarengatik gertatzen diren lekualdaketek, nazioarteko gizarteak gaur egun dituen arazo nagusietako batzuk ere ekartzen ditu: klima aldaketa –Nazio Batuen idazkari nagusiak dioen moduan, "gizakiarentzako mehatxu sistematikorik handiena" da–, azpigarapena, natura baliabideen gehiegizko ustiapena, presio demografikoa, pobrezia eta behartutako emigratzaile horiek hartzen dituzten herrialdeen segurtasunean dituen ondorioak.

Klimaren ondorioz gertatutako migrazioak deigarriak gertatu dira azken urteetan akademikoki. Hala ere, nazioarteko foroetan ez da ezta eztabaidatu ere. Giza eskubideen hitzarmen nagusietan ere ez dute kontuan hartu. Giza eskubideen defentsa kolektibo zaurgarrien babesarekin lotzen duen nazioarteko erantzunik jaso gabe jarraitzen du fenomeno horrek. Kolektibo zaurgarri horiek, gainera, ingurumenaren narriaduraren ondorioz aldatu behar dute lekuz. Horregatik, ingurumenaren ondorioz lekuz mugitu behar diren pertsonen estatus juridiko bat eman beharko litzaieke, haien segurtasunik eza eta babes nahikorik ez izatea eragozteko.

Oraindik giza eskubideen kontzeptua handitu edo berriro finkatu behar da, geuk ingurumenarekin ditugun betebeharra ere gure gain har ditzagun. Ingurumenaren eta giza eskubideen babesaren arteko lotura esplizitua nazioarteko ordenamendu juridikoaren erronka nagusietako bat da, eta tresna garrantzitsua izan daiteke ingurumenaren ondorioz lekuz aldatzen diren pertsonen nahitaezko izaerari

erantzuteko. Izan ere, baliabide ezagun eta orokorrak ematen dituzte, hala nola irtenbide bideragarriak bizitzen ari garen krisi ekologikorako. Ingurumenari giza eskubide bat aitortuz gero, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien giza duintasuna eta bizitza babestu ahalko da, ingurumenaren larrialdiak arriskuan jartzen dituelako.

Ekainaren 5ean Ingurumenaren Mundu Eguna ospatuko dugu, eta hor, kultura askotan Ama Natura esaten dioten Lurrarekin daukagun harremanari buruzko gogoeta egin beharko dugu. Naturarekiko harmonian oinarritutako bizitza paradigma bat bilatu behar dugu. Ingurumenaren ondorioz lekuz aldatzen diren pertsonen egoerak jendearen sentikortasuna eta agintarien konpromisoa eskatzen du, giza eskubideen doktrinaren eraginari buruz hausnarketa egiteko. Eska dezagun geuk ere ingurumenerako giza eskubide bat.

Oriol Solà Pardell, Desplazados medioambientales: una nueva realidad (Giza Eskubideen buruzko Deusto Koadernoak, 2012) liburua eta El derecho humano al medio ambiente: una propuesta ecocéntrica (UPF 2020) doktorego-tesiaren egilea.

ALBOAN elkarteak ekintza humanitarioko proiektuekin laguntzen die Afrikan, Latinoamerikan eta Indian lekualdatutako eta errefuxiatutako biztanleei. www.alboan.org (<https://www.alboan.org/eu>) webgunean lagundu dezakezu.

ALBOAN eta Cocolisto elkarteek COVID-19k gehien kaltetutako komunitateak laguntzeko "Breaking the Wall, escape room" a laster erabilgarri izango dute.

Goizeko buletina

BERRIAren papereko edizioaren gai nagusiak
biltzen ditu egunero (astelehenetan salbu).

Goizean goiz iristen da zure posta
elektronikora.



[Pribatutasun politika](#)

(<https://www.berria.eus/legeinformazioa#pribatutasuna>)

eta [Lege informazioa](#)

(<https://www.berria.eus/legeinformazioa>) irakurri ditut

eta onartzen ditut



No soy un robot

reCAPTCHA
[Privacidad](#) - [Términos](#)

idatzi zure p

Harpidetu

Albiste gehiago

30.161 Positibo
emandakoak

2.107 Hildakoak

253 Ospitaleratuak

Koronabirusaren azken datuak

(<https://www.berria.eus/albisteak/178753/k.htm>)

Azkeneko 24 orduetan beste lau pertsona hil
dira, COVID-19 gaitzaren eraginez. 23 positibo
atzeman dituzte PCR probekin, eta sei gaixo
ospitaleratu dituzte. Euskal Herrian 30.161
gaixok eman dute positibo guztira,
koronabirusa atzemateko probaren bat eginda.
Horietatik 2.107 hil dira. **Grafikoak, albiste
barruan.**